


EMAKUNDEREN ZERBITZUEN KATALOGOA



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna


Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

www.emakunde.euskadi.eus



Emakunderen Zerbitzuen Katalogoa tresna bat da erakundearen zerbitzuak eta produktuak, gardentasunaren eta gobernu onaren izenean, errazago zabaldu eta ezagutarazteko, baita herritarren eskurago jartzeko ere.



Xedea

Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomo bat da, Lehendakartzara atxikia. Emakundek berdintasun politiketarako aholku ematen du, halakoak diseinatzeko, sustatzeko, koordinatzeko eta ebaluatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko Euskal Autonomia Erkidegoko bizitza politiko, sozial, kultural eta ekonomikoaren esparru guztietan.

Nor gara? +

Lan-esparruak

- Herri-administrazioak
- Enpresak eta erakundeak
- Emakumeen elkarteak
- Hedabideak
- Herritarrak

Araudia

- 2/1988 Legea, otsailaren 5koa, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea sorrarazteari buruzkoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 103/1998 Dekretua, ekainaren 9koa, Emakumearen Euskal Erakundearen Aholku Batzordea sortzen duena.
- 105/2004 Dekretua, ekainaren 8koa, aholkularitza entitateen homologazioa arautzen duena, enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko.
- 166/2006 Dekretua, irailaren 12koa, Berdintasunerako Emakunde Saria sortu eta arautzen duena.
- 214/2006 Dekretua, urriaren 31koa, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.
- 261/2006 Dekretua, abenduaren 26koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailen arteko Batzordea erregulatzen duena.
- 5/2007 Dekretua, urtarrilaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea arautzekoa.



- 360/2013 Dekretua, ekainaren 11koa, Begira / publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordearena.
- 11/2014 Dekretua, otsailaren 11koa, «Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea» aitortzea arautzen duena.
- 48/2022 DEKRETUA, apirilaren 12koa, generoaren arloko aukeraberdintasunerako jarduketarremuko zenbait dekretu aldatzen dituen, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organiko eta funtzional berrira egokitzeko. XIII. Legegintzaldiko jardun-arloak finkatzeko dekretua
- XIII. Legegintzaldiko jardun-arloak finkatzeko dekretua
- 388/2024 Dekretua, azaroaren 26koa, Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena



Sentsibilizazioa +

- Sentsibilizazio-kanpainak: Martxoaren 8a, Azaroaren 25a eta berdintasunaren arloko urteko kanpainak.
- Sentsibilizazio-ekintzak eta -jarduerak: Emakunde saria, Berdintasunerako foroa, liburuxkak, gidak, hedabide eta agentziekin elkarlanean aritzea komunikazio eta publizitate ez-sexista bultzatzeko.
- Berdintasunari buruzko jardunaldiak, ikastaroak, mintegiak eta biltzarrak.
- Sare sozialen, webgunearen eta aldizkari digitalaren bidezko sentsibilizazioa.
- Publiko espezifikoki zuzendutako ekimenak: Nahiko Hezkidetzeta Programa, gizoni zuzendutako Gizonduz ekimena, gazteen artean indarkeria matxista prebenitzeko Beldur Barik Programa eta Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzen aldeko Herri Ituna plataforma.
- EKIM. Emakumeen kontrako indarkeria matxistari buruzko informazio-ataria.

Kanpo-prestakuntza +

- EBE - Emakunderen Berdintasun Eskola.
- Udako Ikastaroa.
- Eusko Jaurlaritzako langileentzako berdintasunari buruzko prestakuntza (IVAPekin batera).
- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko EAEko sistemako profesionalentzako prestakuntza (Jabetuz programa).
- Gizoni, berdintasunari eta maskulinitatei buruzko prestakuntza (Gizonduz ekimena).
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza UPV/EHUrekin elkarlanean.
- Prestakuntza Unibertsitate-graduondoko ikasketetan, eta elkarlana unibertsitate-praktiketako programetan emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeko profesionalak espezializatzen.

Laguntzak eta errekonozimenduak

Diru-laguntzak +

- EAEko udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateentzako diru- laguntzak, beharrezko laguntza teknikoa izan dezaten emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko eta/edo berdintasunerako planak egin, ebaluatu eta egokitzeko.
- Emakumeen elkartegintza sustatzeko eta EAEko esparru guztietan haien parte-hartzea indartzeko diru-laguntzak.
- Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak, aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatzeke, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak eta berdintasun- planak egin ditzaten.
- UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasun masterreko diru-laguntzak.
- Emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideak prebenitzeko eta/edo sentibilizatzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei zuzendutako diru-laguntzak.
- Berdintasunaren alorrean izaera berritzaileko edo interes estrategikoko proiektuak diruz laguntzea.
- Sexu Indarkerian Esku Hartzeko Adituaren Diploma egiteko ikasleentzako laguntzak.

Sariak eta lehiaketak +

- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Emakunde Saria.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ikerlanen argitalpenen lehiaketa.

Bekak +


- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ikerlanak egiteko bekak.

Errekonozimenduak +

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzaren erakundearen aitorpena.


Homologazioa +

- Aholkularitza-agentzien homologazioa enpresa eta erakunde pribatuei berdintasun-diagnostikoak eta planak egiteko laguntza teknikoa eskaintzeko.



Elkarlana

- Berdintasuna sustatzeko sailarteko edo erakundearteko proiektu eta organoekin elkarlanean aritzea.
- Elkarlanean aritzea beste autonomia-erkidego batzuetako, Estatuko edo nazioarteko berdintasunaren arloko instituzio eta erakundeekin: Emakumearen Estatuko Erakundea, Genero Berdintasunaren Europako Institutua, NBE Emakumeak, UNFPA, UNDP...
- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin eta Euskadiren atzerriko Ordezkaritzekin elkarlanean aritzea EAEko berdintasun-politikak nazioartekotzeko.
- Osalanekin, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzarekin eta Euskalitekin batera elkarlanean aritzea enpresetako berdintasunaren arloan.
- Estatuko Emakumeen Dokumentazio Zentroen eta Liburutegien Sarearekin elkarlanean aritzea.
- Genero Indarkeriaren Bizkaiko Behatokian parte hartzea.



Koordinazioa +

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea eta haren lantalde teknikoak.
- Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea eta haren lantalde teknikoak.
- EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko III. Akordioa.
- Eusko Jaurlaritzaren Sailarteko Batzordea emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen espedienteen kudeaketa osoa hobetzeko.
- Emakumeen elkarten Aholku Batzordea eta haren lurralde-azpibatzerdeak.
- Begira. Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea.
- Bai Sarea. Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Lankidetzaz Erakundeen Sarea.
- Berdinsarea. Berdintasunaren aldeko Udalerrien Sarea eta haren batzordeak.
- Berdinbidean. Emakume eta Gizonen Berdintasun arloan udalerritxikiei Aholkua Emateko Zerbitzua.

Aholkularitza

Herritarrei +

- Ikerketak egitea, sektore pribatuan sexua dela-eta zuzeneko edo zeharkako bereizkeria gertatu dela uste bada, halako bereizkeria-egoerak argitzeko.
- Pertsona fisiko eta/edo juridikoei gomendioak ematea bereizkeriazko egoera edo ekintzak zuzentzeko.
- Aholku ematea, sektore pribatuan sexu-bereizkeriako egoerak egon daitezkeenean.
- Sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuen konponbidea errazteko tresna izatea.

Enpresei +

- Aholku ematea hedabideei eta publizitate-enpresa eta -agentziei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko gaietan, publizitate ez-sexistaren arloan tartean.
- Kudeaketa-prozesuetan eta zerbitzuetan berdintasuna txertatzeari buruz enpresei aholku ematea.

Emakumeen elkarteei +

- Laguntza teknikoa ematea Aholkularitza Batzordeari eta Lurralde-azpibatzerdeei.
- Aholku ematea emakumeen elkarteei.



Aholkularitza

Administrazio Publikoari +

- Aholku ematea euskal administrazio publiko guztiei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko politikak eta jarduerak bultzatu eta garatu ditzaten.
- Beste administrazio batzuek bultzatutako partaidetza-kontseiluetan genero-ikuspegia txertatzeari buruzko aholku ematea.
- Aholku ematea Eusko Jaurlaritzako beste komunikazio-kabinete batzuei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko gaietan.
- Eusko Jaurlaritzako, foru aldundietako eta udaletako sailei aholku juridikoa ematea, erakundearen jarduera esparruaren berezko gaietan.
- Lan-agintaritzari aholku ematea berdintasun-printzipioa hitzarmen kolektiboetan errespetatzeko.
- Europako funtsetan genero-ikuspegia txertatzeari buruzko aholku ematea.
- Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak egiaztatzeko eta hobetzeko txostenak egitea.
- Sail, foru eta tokiko berdintasun-planentzako txostenak egitea berdintasun-planaren eta legearen egokitzapenaren inguruan.
- Berdintasuna zehazten ez duten Plan Sektorialentzako txostenak egitea genero-ikuspegia txertatzeko.
- Berdintasunaren sustapenarekin eta babesarekin loturiko alderdi juridikoen inguruko txostenak egitea, bereziki emakumeen aurkako indarkeriaren ingurukoak.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen harrera hobetzeko tokiko jarduera-protokoloiei eta erakunde-koordinazioari buruzko txostenak egitea.

Jakintza sortzea

Ikerketa

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ikerlanak egitea.

Dokumentazioa +



- Emakunderen Dokumentazio Zentroa eta mailegu-zerbitzua kudeatzea.

Tresnak, gidak eta laguntza-materialak +

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko gidak eta laguntza-materialak egitea: Zifrak txostena, EAEko emakumeen elkarteen gida, sektore eta gaikako gidak.
- Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankua kudeatzea.
- Berdingune webgunea, EAEko berdintasunaren arloko programei eta baliabide publikoei buruzkoa, kudeatzea.

Argitalpenak +

- Emakundek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako materialak eta azterlanak argitaratzea.



Plangintza ⊕

- EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Plana egitea, eta bertan EAerako berdintasun-politiken jarraibide orokorrak biltzea.

Ebaluazioa ⊕

- Berdintasunerako Legearen ebaluazioa.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana ebaluatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoan dauden arretaren arloko zerbitzuen eta programen eraginkortasuna eta helmena ebaluatzea.

Legedia

- Legeriari buruzko proposamenak eta arauak eraldatzeko proposamenak, bi sexuen arteko benetako eta egiazko berdintasuna lortzea eragotzen duten oztopoak ezabatzeko, eta martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua garatzeko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko eremuetan indarrean dagoen legeriaren eta haren aplikazioaren jarraipena.

Kexak eta iradokizunak


- Sektore pribatuan sexu-bereizkeriagatik jasotako kexak eta salaketak bideratzea.
- Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei arreta emateko zerbitzuen gaineko kexak bideratzea.
- Komunikazioaren eta publizitatearen arloan sexismoagatik jasotako kexak bideratzea.
- Eremu publikoko sexuagatiko diskriminazioaren ondorioz egindako salaketak bideratzea.
- Erakundearen jarduerari buruzko iradokizunak aztertzea.

Zehapenak

- Zehapen-espedienteak bideratzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotakoaren arabera.

Emakunderen webgunea

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin loturiko gaien eta Emakunderen jardueren berri ematen da erakundearen webgunean.



Harremanetarako informazioa



Harremanetarako

Manuel Iradier, 36 • E-01005 Vitoria-Gasteiz

Tel: (34) 945 016 700

emakunde@euskadi.eus

www.emakunde.euskadi.eus